

<p style="text-align: center;">I C ERANSKINA</p> <p style="text-align: center;">Jarduera sailkatuko lizentzia behar duten jarduerak eta instalazioak</p> <p style="text-align: center;">(10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa)</p>	<p style="text-align: center;">ANEXO I C</p> <p style="text-align: center;">Actividades e instalaciones sometidas a licencia de actividad clasificada.</p> <p style="text-align: center;">(Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi)</p>
<p>I. eranskin honen A eta B ataletan jaso ez diren jardueren kasuan, sailkatutako jardueretarako udal-lizentziaren mende egongo dira honako jarduera eta instalazio hauek:</p>	<p>Siempre que se trate de actividades no incluidas en los apartados A y B de este Anexo I, se someterán a licencia municipal de actividad clasificada las siguientes actividades e instalaciones:</p>
<p>1 Erauzketa jarduerak.</p>	<p>1 Actividades extractivas.</p>
<p>2 Instalazio nuklear eta erradioaktiboak.</p>	<p>2 Instalaciones nucleares y radiactivas.</p>
<p>3 Energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak, energia berriztagarria energia elektrikoa bihurtzeko biltze- eta eraldatze-instalazioak barne, potentzia instalatua 100 kW baino handiagoa baldin badute. Ez dira sartzen energia fotovoltaikoko instalazioak, baldin eta finkaturik dauden lurzoru urbanizatueta edo lehendik dauden eraikinetan badaude.</p>	<p>3 Instalaciones productoras de energía eléctrica, incluyendo las instalaciones de captación y transformación de energía renovable en energía eléctrica, con una potencia instalada superior a 100 Kw. Quedan excluidas las instalaciones de energía fotovoltaica que se sitúen en terrenos urbanizados ya consolidados, o bien sobre edificios preexistentes.</p>
<p>4 Industriak, orokorrean.</p>	<p>4 Industrias en general.</p>
<p>5 Azaleko tratamenduak, bernizatze lanak, pistolekin pintatze lanak eta antzekoak egiten dituzten tailerrak,</p>	<p>5 Talleres que realicen tratamientos superficiales u operaciones de barnizado o pintado a pistola y similares.</p>
<p>6 Hainbat tailer eta lantegi (zurgindegiak, galdarategiak, muntaketa, mekanizazioa, eta okintzako, pastelgintzako, cateringeko lantegiak...), daukaten instalatutako guztizko potentzia (potentzia mekaniko eta elektrikoa, argiztapenari dagokiona salbu) 25 kW-koa edo gehiagokoa denean, eta berariaz ekoizteko erabiltzen duten eremua 300 m² baino handiagoa denean.</p>	<p>6 Talleres y obradores varios (mantenimiento y reparación de vehículos a motor y similares, carpinterías, caldererías, montaje, mecanización, obradores de panadería, pastelería, catering...), cuando la potencia total instalada (potencia mecánica y eléctrica, excluida la correspondiente al alumbrado) sea igual o superior a 25 kW y la superficie específicamente destinada a la producción supere los 300 m².</p>
<p>7 Toxiko, arriskutsu edo sukoitzat jotako produktu eta materialak biltegitratzea, salerostea eta erakustea dakartzaten jarduerak edo instalazioak, baldin eta 500 kg produktu edo material baino gehiago badute etxebizitzetarako hiri lurzoruetan kokatutako instalazioetan, edo 1.000 kg baino gehiago gainerako lurzoruetan.</p>	<p>7 Actividades o instalaciones de almacenamiento, comercio y exposición que dispongan de productos y materiales catalogados como tóxicos, peligrosos o inflamables en cantidad superior a 500 kg en instalaciones ubicadas en suelo urbano residencial, y 1.000 kg en el resto de suelos.</p>
<p>8 Gasolina zerbitzuguneak eta hornitegi parkeak, erregai likido edo gasezkoekin lan egiten duten banaketa instalazioak edo antzekoak.</p>	<p>8 Estaciones de servicio y parque de suministro, instalación distribuidora o instalación análoga de combustibles líquidos o gaseosos.</p>
<p>9 Erregai likido edo gasezkoetarako biltegiak, edozein lurzoru motatan kokatuak, 50.000 litro baino edukiera handiagoa dutenak.</p>	<p>9 Instalaciones de almacenamiento de combustibles líquidos o gaseosos ubicadas en cualquier tipo de suelo con una capacidad superior a 50.000 litros.</p>

<p>10 Lurrezko eta harrizko betelanak, 500.000 m³ baino edukiera handiagoa dutenak, betiere lanek urte bat baino gehiago irauten badute, azpiegitura linealeko obrei lotuta daudenak izan ezik.</p>	<p>10 Rellenos de tierras y rocas con una capacidad superior a 500.000 m³ cuya ejecución se prolongue por un tiempo superior a un año, excepto aquellos vinculados a obras de infraestructura lineal.</p>
<p>11 Hondakin urak arazteko eta edateko urak tratatzeko instalazioak.</p>	<p>11 Instalaciones de depuración de aguas residuales y de tratamiento de agua potable.</p>
<p>12 Piszifaktoriak</p>	<p>12 Piscifactorías</p>
<p>13 Hiltegiak</p>	<p>13 Mataderos</p>
<p>14 Dantzalekuak, diskotekak, gazteentzako diskotekak, disko tabernak, karaokeak, taberna bereziak, pubak edo antzekoak, bai eta zezen plaza iraunkorrak ere.</p>	<p>14 Los establecimientos destinados a salas de fiestas, discotecas, discotecas de juventud, disco-bares, karaokes, bares especiales, pubs o similares, así como las plazas de toros permanentes.</p>
<p>15 Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea. • Indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera arrisku bereziki altuko gisa katalogatutako instalazioen bat edukitzea. • Kultura-balio handiko eraikinak izatea, beren ezaugarriek izaera orokorrez finkatutako baldintza teknikoak erabat betetzeko aukera ematen ez badute. • Ikuskizunei eta jolas-jardueri buruzko araudiaren arabera erregimen bereziko establezimenduak izatea. 	<p>15 Otros establecimientos de espectáculos públicos o actividades recreativas, siempre y cuando, en todos los casos, cumplan alguno de los siguientes requisitos:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Disponer de una capacidad o aforo igual o superior a 300 personas. • Disponer de algún recinto catalogado de riesgo especial alto de acuerdo con la normativa técnica en vigor. • Que se trate de edificios de valor cultural cuyas características arquitectónicas no permitan el pleno cumplimiento de las condiciones técnicas establecidas con carácter general. • Que se trate de establecimientos de régimen especial conforme a la normativa de espectáculos y actividades recreativas.
<p>16 300 lagun edo gehiagorentzako lekua duten gurtzarako zentroak.</p>	<p>16 Centros de culto con una capacidad o aforo igual o superior a 300 personas.</p>
<p>17 Etxeko eskortak edo abeltzaintzako ustiategiak, 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituztenak, edo horien baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuko 3. artikulua araberaren a apartatuan adierazitako proportzioen arabera, edo hori ordeztzen duen beste arau baten arabera; bai eta 25 txakur baino edukiera handiagoa duten txakur zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza) ere, betiere lurzoru urbanizaezinean edo hiri lurzoru industrialean kokatuta badaude.</p>	<p>17 Explotaciones ganaderas y corrales domésticos de más de 20 UGM (unidades de ganado mayor) o explotaciones equivalentes según las proporciones que se indican en el apartado a) del artículo 3 del Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, o norma que lo sustituya, y guarderías caninas (cría y adiestramiento) con una capacidad superior a 25 perros, siempre que todas ellas estén ubicadas en suelo no urbanizable o suelo urbano industrial.</p>
<p>18 Etxeko abeltzaintza jarduerak; hots, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino instalazio handiagoak, eta txakur zaindegi guztiak, betiere etxebizitzetarako hiri lurretan kokatuta badaude.</p>	<p>18 Actividades ganaderas domésticas, entendiendo por tales las instalaciones de más de 4 UGM (unidades de ganado mayor), y todo tipo de guarderías caninas, siempre que todas ellas estén ubicadas en suelo urbano residencial.</p>
<p>19 Lege honetan xedatutakoaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen beste jarduerak batzuk.</p>	<p>19 Otras actividades que, de conformidad con lo dispuesto en esta ley, puedan tener efectos análogos sobre el medio ambiente y la salud.</p>